

Gure proiektuak aurrera egiteko ezinbestekoa izan da komunikazio lan txukun eta zabal bat egitea, horretarako, hainbat baliabide erabili ditugu. Irratia, telebista edo mugikorra bezalako baliabideak erabiliz gure produktua saltzea eta erakustaraztea lortu dugu. Edonork etxean dituen gailu elektronikoez baliatuz, gure iragarkia zabaltzea posible izan da, ala nola, irratietako edota telebistako salmenta eta komunikazio kanaletan. Publiko guztira iristeko aldizkarietan ere idatzi dugu, adibidez, aldizkari ekologikoetan eta ingurumenari buruz hitz egiten duten egunkarietan.

Banaketa lanak beatuz ere lan txukuna egin dugu, izan ere, gure bezeroetara iristeko hainbat pauso egin behar izan ditugu. Lehenik, produktua ebaluazio fase batetik igarotzen da eta gero salerosketa fase batean sartzen da. Behin produktua saldu dugula, banaketa prozesuan gaude eta horretarako hainbat garraio bide erabiltzen ditugu, gehientzean furgonetak kargatzen ditugu eta posta bidez bezeroarengana iristen gara. Azkenik, salmentaren ondorengo prozesuan sartzen gara, salmentaren hausnarketa eta ondorioak beatuko ditugu eta gure produktuaren onurak eta gabeziak aztertuko ditugu.

Gure produktuak eskuragarriak dira edozein bezeroentzat, izan ere, proiektuarekin hasi eta berehala webgune bat sortu genuen. Bertan tramankuluari buruzko informazio asko dago eta edozeinentzat lagungarria izan daiteke. Produktua erosteko aukera ere egongo da eta posta bidez egingo da bezeroari banatzeko.